

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

Iraunkortasunaren eta Gizarte Konpromisoaren arloko Zuzendaritza 2020ko **MEMORIA**

www.ehu.es

Aurkezpena

Iraunkortasunaren eta Gizarte Konpromisoaren arloko Zuzendaritzak, 2020tik Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzaren mende dagoenak, **iraunkortasunaren kultura eta gizarte konpromisoa sustatu nahi ditu** unibertsitateko kideen artean eta, oro har, gizarte osoan. Irakaskuntzaren, ikerkuntzaren eta gestioaren esparruan aritzen da honako helburu hauekin:

- **Gure baliabideen erabilera eraginkorragoa sustatzea, ingurumena eta pertsonen bizi kalitatea zaintzeaz eta hobetzeaz batera.**
- **Ingurune akademiko ekintzaile eta berritzailea sortzea, sormenezko konponbide eraginkorrak sortuko badira XXI. mendean aurrez aurre izango ditugun arazoei aurre egiteko.**
- **Gizartearekin konprometituta dagoen eta inklusioa, ekitatea eta iraunkortasuna sustatzen dituen unibertsitatea eraikitzeke aldaketa sustatzea.**
- **Unibertsitatearen jardueraren onurak maximizatzeraz eta inpaktu negatiboak minimizatzeraz bideratutako ekintzak abian jartzea, bai eta gure ingurunearen eta planetaren eraldaketa sozioekonomikoari eta garapen sozialari laguntzea ere.**

Taldea

Guillermo Quindós Nogués	Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordea	vrdesarrollo-transferencia@ehu.eus
Estíbaliz Sáez de Cámara Oleaga	Iraunkortasunaren eta Gizarte Konpromisoaren arloko zuzendaria	estibaliz.saezdecamara@ehu.eus
Nekane Castillo Eguskitza	Ingurumeneko teknikaria	nekane.castillo@ehu.eus
Isaac Barrio Marin	Hondakinen eta ingurumen kalitatearen kudeatzaile teknikaria	isaac.barrio@ehu.eus
Miren Korta Merino	Iraunkortasuneko teknikaria	mirenitxaso.corta@ehu.eus
Felipe García Esteban	Gizarte konpromisoko teknikaria	felipe.garcia@ehu.eus
Estíbaliz Martínez Villabeitia	Lankidetzako teknikaria	estibaliz.martinez@ehu.eus
Amaia Agirre Ibarra	Administratzailea	amaia.aguirre@ehu.eus

Unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean aurrera egitea

HONDAKINAK

Hondakin arriskutsuen kudeaketara bideratutako "Laborategiko jardunbide egokiak" ONLINE IKASTAROA

Helburua: Laborategietan jarduerak egiten dituzten pertsoneri, irakasleei, teknikariei edo ikasleei, hondakin arriskutsuen kudeaketari buruzko gutxieneko ezagutza ematea.

Iraupena: 25 ordu (ECTS kreditu 1).

Edizioak: 4. edizioa: 2020/02/13 - 2020/03/24

5. edizioa: 2020/09/29 - 2020/11/06

Parte-hartzaileak: 4. edizioa: 134 (% 67,9 emakumeak, % 30,59 gizonak eta % 1,51 ez-bitarrak)

5. edizioa: 154 (% 57,79 emakumeak eta % 42,21 gizonak)

Arrakasta-tasa: 4. edizioa (% 89,5) eta 5. edizioa (% 85,7)

[Informazio gehiago](#)



Unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean aurrera egitea

HONDAKINAK

Kafe makinetan katilu berrerabilgarrien erabilpena sustatzeko kanpaina

2020ko otsailean kanpaina bat egin da edari beroen makinek ematen dituzten erabilera bakarreko edalontzien ordez edalontzi berrerabilgarrien erabilera sustatzeko; unibertsitateko kideen artean kontsumo ohitura arduratsuak sustatzea izan da kanpainaren xedea.

Kanpaina hau UPV/EHUko unibertsitate-zentro guztietara zabaldu da.



Unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean aurrera egitea

HONDAKINAK

UPV/EHUK [Hondakinak Prebenitzeko Europako Astean](#) (EWWR) parte hartu du, eta bi jardunbide egoki aurkeztu ditu:

- [Hondakin arriskutsu kimikoak minimizatzeko jardunbide egokien eskuliburua](#), Campus Bizia Lab programaren “Ekonomia zirkularra” erronkaren proiektuak
- [“Jardunbide egokiak laborategian \(2\): hondakinak”](#) online prestakuntza ikastaroa.

Aste honek 10 urte baino gehiagoko ibilbidea du, eta hondakin gutxiago sortzeko inpaktu-ekintzak ikusaraztea du helburu. 2020. urtean, azaroaren 21etik 29ra egin da, eta **hondakin ikusezinak** izan ditu ardatz.




Unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean aurrera egitea

ENERGIA

UPV/EHUko eraikinen %75,6k energia-ziurtagiria lortu dute, A, B edo C energia-eraginkortasuneko etiketak eskuratuta, eta energia elektrikoaren kontratazioa aldatu da; hala, 2019/20 ikasturtean, UPV/EHUk kontsumitutako energiaren %100 iturri berriztagarrietatik dator.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea betetzeko, UPV/EHUren Jasangarritasun Energetikoko Plana egiteko izapideak hasi dira.



Unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean aurrera egitea

ENERGIA

Berraktibatu+ Unibertsitateak programaren esparruan, eta unibertsitate-komunitatea energia-kontsumoaren eredu iraunkorragoetara aldatzeko beharraz kontzientziatzeko, **“Energia kontsumoa Informatika Fakultatean. Diagnostikoa eta hobetzeko proposamenak”** izeneko azterlana egin da Informatika Fakultatean. Diagnostikoa eta hobetzeko proposamenak.

Ondorio gisa, inkestan izandako parte-hartze handia nabarmentzen da, eta politika orokor eta koordinatu baten beharra adierazten da, lanpostu bakoitzeko motibazio eta erronka kolektibo batekin uztartuz.

Hemen eskuragarri:

<https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/berraktibatu-informatika-fakultatea-2019-2021>



Unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean aurrera egitea

MUGIKORTASUNA



2020ko irailaren 20tik azaroaren 30era bitartean, Europar Batasunak finantzaturako U-MOB LIFE Mugikortasun Jasangarriaren aldeko Unibertsitateen Sarea proiektuaren esparruan, Europako unibertsitateen arteko mugikortasun iraunkorraren aldeko 1. txapelketa egin zen.

Txapelketa horren bidez, sarean parte hartzen duten unibertsitateetara egindako joan-etorriek sortutako CO₂ isuriak murrizten lagundu nahi da.

[Informazio gehiago](#)

Unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean aurrera egitea

MUGIKORTASUNA

Mugikortasunaren Europako Astea (MEA) UPV/EHU

2020ko irailaren 16tik 22ra

“Isurketarik gabeko mugikortasunaren alde”



Aurrez aurreko jarduerak

Bizkaiko Campusa

- Ibilbidea oinez Arboretumetik

Arabako Campusa

- Ibilbidea bizikletaz
- Bizikletaren Ikuskapen Teknikorako Puntua (BIT)

Gipuzkoako Campusa

- Bizikleta tailerra
- Botila (eko)Logikoak: plastikozko botilen kontsumoari eta mugikortasun iraunkorrari buruzko informazio standa

Online jarduerak

- “Emisiorik gabeko mugikortasunaren alde” webinarra
- Argazki lehiaketa

Unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean aurrera egitea

Erosketa eta kontsumo arduratsua



2020ko abenduaren 14tik 19ra bitartean, **“Euskadiko elikagai xahuketaren aurkako astea”** egin da. Babeslea Erika –Eusko Jaurlaritzaren mendeko Elikagaien Segurtasunerako Fundazioa– izan da. Ekimena Xahuketaren aurkako Plataformak bultzatutako Ekintza Planaren esparruan gauzatu da. UPV/EHU ere plataforma horri atxikita dago.

Aste hau dela eta, UPV/EHU n sentsibilizazio-kanpaina bat garatu da sare sozialetan eta webinarrean: **¿Cómo conservación alimentos y no morir en el intento?** [Maitane Alonso](#) ikertzaile eta asmatzaileak eman du kanpaina hori.

[Informazio gehiago](#)



Unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean aurrera egitea

Ingurumen inpaktuaren ebaluazioa (1)

2020an, UPV/EHUK eragindako ingurumen inpaktuaren diagnostikoa egin da; horretarako, EUBB- Iraunkortasunaren Unibertsitate Iraunkortasuna Ebaluatzeko Lantaldeak (GESU) unibertsitate osoari dagozkion jarduketan ingurumen inpaktua neurtzeko garatutako erreminta erabili da.

Tresna hori unibertsitateak zer-nolako ingurumen iraunkortasun maila duen jakiteko diseinatu da eta, aldi berean, unibertsitatearen ingurumen kalitatea etengabe hobetzeko tresna bat da. Unibertsitatearen funtsezko hiru arlotan oinarritzen da: antolaketa, irakaskuntza eta ikerketa, eta kudeaketa. Diagnostikoaren emaitzak txosten honetan daude jasota: "GESU-Crue-Sostenibilidad (2021) Diagnóstico de la Sostenibilidad Ambiental en las Universidades Españolas. Informe 2020. Grupo de Evaluación de la Sostenibilidad Universitaria (GESU) de Crue Sostenibilidad".



Informe 2020

Diagnóstico
de la
sostenibilidad
ambiental
en las
universidades
españolas

Unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean aurrera egitea


Ingurumen inpaktuaren ebaluazioa (2)

Indicadores	Puntuación	Máximo	Porcentaje
Política de Sostenibilidad	11,5	13	88,5%
Implicación y sensibilización de la comunidad universitaria	12	15	80,0%
TOTAL Área 1: Organización			84,2%
Docencia	10,5	12	87,5%
Investigación y transferencia de tecnología	9	14	64,3%
TOTAL Área 2: Docencia e Investigación			75,9%
Urbanismo y biodiversidad	4	6	66,7%
Energía	12,5	21	59,5%
Agua	5,5	11	50,0%
Movilidad	5,5	10	55,0%
Residuos	4,5	6	75,0%
Compra Verde	8,5	17	50,0%
Evaluación del impacto ambiental de las actividades	7,5	15	50,0%
TOTAL Área 3: Gestión Ambiental			58,0%
Evaluación Global			66,0%

2020an, iraunkortasuneko unibertsitate politiken arloan, UPV/EHUri egindako ebaluazioaren emaitza

Unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean aurrera egitea

Ingurumen inpaktuaren ebaluazioa (3)



2020an, iraunkortasuneko unibertsitate politiken arloan, UPV/EHUri egindako ebaluazioaren emaitza


Unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean aurrera egitea

Ikastegiek ingurumenarekin duten konpromisoa

Aholkularitza eta laguntza eman da unibertsitate zentroetan ingurumen hobekuntzako batzordeak eta/edo taldeak mantentzeko, garatzeko edo abian jartzeko, ingurumen kudeaketako sistemen ziurtapenerako auditoriak presta ditzaten, eta unibertsitate jarduerak ingurumenean duen eragina minimizatzeko neurriak ezar ditzaten.

2019/20 ikasturtean, **unibertsitate zentroen %63k baino gehiagok Ingurumena Hobetzeko Planak zituzten indarrean.**

[Informazio gehiago](#)



Unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean aurrera egitea

Bestelakoak: ekitaldi iraunkorrak




Erronka Garbia Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiri bat da; haren bidez, aitortza ematen zaie ingurumenean eragin ditzaketen inpaktu negatiboak minimizatzeko asmoz diseinuan eta antolakuntzan ingurumen neurriak txertatzen dituzten ekitaldiei.

Unibertsitateko kideei ekitaldien ziurtapena lortzen lagundu zaie, eta Bizkaia Aretoarekin batera jarraibide batzuk prestatu dira.

Unibertsitateko kideen artean lankidetzara lana sustatzea UPV/EHUK dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

Campus Bizia Lab programa (1)



Campus Bizia Lab (CBL) programa Erasmus University Educators for Sustainable Development proiektutik etorritako ekimen bat da. UPV/EHUK 2013-2016 bitartean parte hartu zuen proiektu horretan.

CBL proiektuaren helburua da lankidetzara prozesu bat sortzea ikasleen, IRien eta AZPko langileen artean, unibertsitatearen beraren barruan iraunkortasun erronkei erantzute aldera.

- 2019/2020 ikasturtea - 3. edizioa
- 2020/2021 ikasturtea - 4. edizioa

Unibertsitateko kideen artean lankidetzaz lana sustatzea UPV/EHUK dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko


Campus Bizia Lab programa (2)

2019/2020 ikasturtea – 3. edizioa


Proiektuak /Proyectos: 21

- ARABA - 7 , • BIZKAIA - 12 , • GIPUZKOA - 2

Sexua / Sexo



Kolektibo / Colectivo



Unibertsitateko kideen artean lankidetzaren lana sustatzea UPV/EHUK dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko


Campus Bizia Lab programa (3)

2020/2021 ikasturtea – 4. edizioa


Proiektuak /Proyectos: 26

- ARABA – 10 , • BIZKAIA – 11 , • GIPUZKOA – 5

Sexua / Sexo



Kolektibo / Colectivo



Unibertsitateko kideen artean lankidetzaz lana sustatzea UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

Campus Bizia Lab programa (4)

Proiektuak



EHU-Aztarna




Arabako Campuseko Baratza Ekologikoan



Trantséner-kom


Trantsizio energetikorantz Bilboko Hezkuntza Fakultatean



EHU-Aztarna2



IRAUNCAMPUS



EHUsuds

Unibertsitateko kideen artean lankidetzaz lana sustatzea UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

Campus Bizia Lab programa (5)

Proiektuak



CARBIOTICS




Emakumea, magrebtarra eta/edo musulmana izatea hautaketa prozesu



Ikasgela osasungarriak



EHU mugituz



Haur eta Gazte Literatura eta GIH



Leioako campuseko berde guneak: aldaketa klimatikorik aurre egiteko aukera

Unibertsitateko kideen artean lankidetzaz lana sustatzea UPV/EHUK dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

Campus Bizia Lab programa (6)

Proiektuak



Azoka agroekologikoa Arabako Campusean



Lehenengo urratsak hezkuntza graduatan benetako hezkidetzaz sustatzeko bidean



EHUKhi



Errealitateak eraldatuz: Ikaskuntza-Zerbitzua GAletan



ARTEKOM



Arabako Campuseko Baratza Ekologikoan


Unibertsitateko kideen artean lankidetzaz lana sustatzea UPV/EHUK dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

Campus Bizia Lab programa (7)

Proiektuak



Elikagai eskaintza eta kontsumoa UPV/EHUn



Konpetentzia sozialen garapena erabaki iraunkorrak hartzerakoan



Olio mineralen emultsioen ordezkapenak



Ingurumen-faktoreen neurketa



ValResLAB




ZAPLASTEKO: Zaborra, plastikoa, ekologia

Unibertsitateko kideen artean lankidetzaz lana sustatzea UPV/EHUK dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

Campus Bizia Lab programa (8)

Proiektuak



Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolan klimatizazioarako energia kontsumoa optimizatzea



#SOSTainability



Bilboko Hezkuntza Fakultatea: Gizarte-espazioaren erabilera



Ekintza-Murrizketa

► Kartelen lehiaketa



Energia Elektriakoaren kontsumoaren murrizketa Leioako Campusean



Eskola baratza Bilboko Hezkuntza Fakultatean

Unibertsitateko kideen artean lankidetzaz lana sustatzea UPV/EHUK dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

Campus Bizia Lab programa (9)

Proiektuak



Competencias transversales/Zeharkako gaitasunak

Unibertsitatea eragile gizartearen eraldaketan

eman ta zabal zazu



EHU onGIZARTE

Unibertsitateko kideen artean lankidetzaz lana sustatzea UPV/EHUk dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

Campus Bizia Lab programa (10)

2020ko argitalpenak

Programa honen emaitzek 22 argitalpen zientifiko ekarri dituzte:

- Alberdi, E., Alvarez, I., Hernández, H., Oyarbide, A., Goti, A. (2020). Analysis of the Air Quality of the Basque Autonomous Community Using Spatial Interpolation. *Sustainability* 12, 4164.
- Alberdi, E., Urrutia, L., Goti, A., Oyarbide, A. (2020). Modeling the Municipal Waste Collection Using Genetic Algorithms. *Processes* 8, 513.
- Fischer, L.K., Neuenkamp, L. et al. (2020). Public attitudes toward biodiversity-friendly greenspace management in Europe. *Conservation Letters*.
- Gutierrez, J., Santaolalla, A., Tercjak, A., Rojo, N., Encinas, D., Gomez de Balugera, Z., Gallastegui, G. (2020). Creating a Green Chemistry Lab: Towards Sustainable Resource Management and Responsible Purchasing. *Sustainability* 12, 8934.
- Jausoro, K., Ruiz de Aretxabaleta, K., Acebo, A.; Sáez, A., Aranguren, E., Oion, R. (2020). Trabajo social escolar ante la situación de emergencia por el covid-19. Propuestas de intervención. School social work. *Revista de Servicios Sociales y Política Social, N° MGO.: Trabajo Social VS Covid. MONOGRAFICO - 2020*
- Lago, R., Martínez, I., Campos, A., Villamor, E., Uriarte, A. Echeverria, A. (2020). Promoting the Photovoltaic Development in the University of the Basque Country (UPV/EHU) by the application of real problems and self-learning problems solving. *Congreso: Edulearn. Online, los días 6 y 7 de julio.*
- López de Arana, E., Aramburuzabala, P., Opazo, H. (2020). Diseño y validación de un cuestionario para la autoevaluación de experiencias de aprendizaje-servicio universitario. *Educacion XX1, 23(1).*
- López, M.D., Ametzaga, I., Viota, M., Cabello, J. (2020). Interfaz ciencia-gestión-sociedad en el ámbito de la conservación: avances conceptuales y metodológicos. *Ecosistemas 29(1):1965.*

- Madrazo, E., Garmendia, M., Almandoz, J., Andrés, I. (2020). Modelling impervious pavements with the Low Impact Development module of the Storm Water Management Model. In M. Kalinowska, P. Rowiński, T. Okruszko, & M. Nones (Eds.), *6th IAHR Europe Congress* (pp. 806–807). <https://doi.org/10.24425/136660>
- Marieta, C., Guerrero, A., Leon, I. (2020). Municipal solid waste incineration fly ash to produce eco-friendly binders for sustainable building construction. *Waste Management*. 120: 114-124.
- Martínez, I., Campos, A., Olascoaga, J. Pikatza, N. (2020). Methodology to calculate the potential rooftop solar photovoltaics using QGIS and GRASS free software. *Congreso: XXIV Congreso de Ingeniería de Organización. en Leganés los días 9 y 10 de julio.*
- Martínez, J., Aristizabal, M.P., Gamito, R., López de Arana, E. (2020). Planificar los TFG con una mirada crítica. *Tándem: didáctica de la Educación Física* 70, 7-12.
- Ortega, U., Díez, J.R. (2020) Avanzando hacia la transición energética en la Facultad de Educación de BILBAO (UPV/EHU). *Boletín de la Asociación Iberoamericana CTS* Volumen y número: 11 Página inicial y final: 27-32
- Ortega, U., Ortuzar, M.A., Díez, J.R. (2020). Towards energy transition at the Faculty of Education of Bilbao (UPV/EHU): diagnosing community and building. *International Journal of Sustainability in Higher Education*, Vol. ahead-of-print No. ahead-of-print. <https://doi.org/10.1108/IJSHE-12-2019-0363>
- Peña, N., Corral, J., Mata, A. (2020). Assessment of the Development of Professional Skills in University Students: Sustainability and Serious Games. *Sustainability* 12, 1014.
- Pereira, O., Celaya, A., Urbikain, G., Rodríguez, A., Fernández, A., López de Lacalle, L.N., (2020). CO2 cryogenic milling of Inconel 718: cutting forces and tool wear. *Journal of Materials Research and Technology* 9(4), 8459-8468.
- Pérez, R., Eugenio, M., Zuazagoitia, D., Ruiz-González, A. (2020). Organic Learning Gardens in Higher Education: Do They Improve Kindergarten Pre-service Teachers' Connectedness to and Conception of Nature? *Frontiers in Psychology* 11, 282.
- Saitua, A., Corral, J., Peña, N. (2020). Improving Knowledge about the Sustainable Development Goals through a Collaborative Learning Methodology and Serious Game. *Sustainability* 12, 6169.
- Saralegi, A., Rojo, N., Alvarez, J., Encinas, L., Amurrio, J. (2020). Strategies to improve hazardous waste management at the Faculty of Engineering Vitoria-Gasteiz UPV/EHU. *European Journal of Sustainable Development*, 9(4), 22.
- Telleria, N., Alegria, I., Arroyo, M. (2020). Adaptation, validation and reproducibility of a short FFQ to assess food group intake in the population resident in the Basque country (Spain). *Public Health Nutrition*, 1-13.
- Telleria, N., Rocandio, A.M., Rebato E., Arroyo, M. (2020). The EHU12/24 cohort: survey design, instruments and participants. *British Journal of Nutrition* 123(3), 347-360.
- Villamor, E., Akizu, O., Azurza, O., Urkidi, L., Campos, A., Basurko, I., Barcena Hinojal, I. (2020). European Cities in the Energy Transition: A Preliminary Analysis of 27 Cities. *Energies* 13(6), 1315.

Unibertsitateko kideen artean lankidetzara lana sustatzea UPV/EHUK dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

Jardunaldi bat antolatu da 2019/20 ikasturtean egindako aurrerapenak partekatzeko eta 2020/21 ikasturterako iraunkortasunaren arloko erronkak eta aukerak definitzeko pandemiaren osteko agertokian. **"Campus Bizia Lab - Iraunkortasuna #Post Covid-19"** izenburupean eta online modalitatean egin den jardunaldi honetan, 107 lagunek parte hartu dute (% 66 emakumeak eta % 34 gizonak).



Iraunkortasuna#Post Covid-19 -Campus BiziaLab programaren jardunaldia

2020ko ekainak 11
Online zuzenean



Campus Bizia Lab jardunbide egoki gisa aukeratu dute Garapen Jasangarrirako Espainiako Sareak (REDS) argitaratutako **"Implementando la Agenda 2030 en la Universidad. Casos inspiradores de Educación para los ODS en las Universidades Españolas"** dosierrako.

Unibertsitateko kideen artean lankidetzaz lana sustatzea UPV/EHUK dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

Berraktibatu+ programa

BerrAktibatu+ Ekintza Globalerako Plana-**Global Action Plan (GAP)** sareak bultzatutako programa bat da eta bertan, besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kolaboratzen dute.

375 pertsonak parte hartu dute unibertsitateko kolektiboetan (%58,4 emakumeak eta %41,6 gizonak).

[Informazio gehiago](#)

ERAIKI DEZAGUN ETORKIZUN IRAUNKORRA
CONSTRUYAMOS UN FUTURO SOSTENIBLE

Jaso **DOAN** zure ohiturak hobetzeko aholkuak eta izan zaitez eko-arduratsua Euskadiren etorkizunarekin.

Graduko ikasleek hautazko kredituak aitortzeko eskaria egin dezakete.

Recibe **GRATIS** consejos para mejorar tus hábitos y súmate a la ciudadanía eco-responsable con el futuro de Euskadi.

El alumnado de Grado podrá solicitar el reconocimiento de créditos optativos.

www.reactivatemas.eus

Unibertsitateko Foru Aldundia / Eusko Jaurlaritza

Unibertsitateko Foru Aldundia / Eusko Jaurlaritza

Bizkaia

ctb

metro bilbao

EROSKI

Naturklima

Oben Social 'In Case'

Unibertsitateko kideen artean lankidetzaz lana sustatzea UPV/EHUK dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

Berraktibatu+ Unibertsitateak programa



Berraktibatu+ Unibertsitateak ingurumen iraunkortasuneko ekimenaren esparruan, ingurumena hobetzeko planak jarri dira abian, hainbat gairi dagokienez (hondakinak, energia, mugikortasuna eta elikadura osasungarria).

Berraktibatu+ Unibertsitateak Global-Global Action Plan (GAP) sareak bultzatutako programa da, eta, besteak beste, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek babesten dute.

187 parte-hartzaile (%72,2 emakumeak, %27,8 gizonak)

[Informazio gehiago](#)

Unibertsitateko kideen artean lankidetzara lana sustatzea UPV/EHUK dituen iraunkortasun erronkei aurre egiteko

2019/20 ikasturtean parte hartu zuten Bizkaiko Campuseko 4 ikastegiei (Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatea, Zuzenbide Fakultatea, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea eta Bilboko Hezkuntza Fakultatea) Arabako Campuseko 2 ikastegi (Farmazia Fakultatea eta Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatea), Gipuzkoako Campuseko 3 ikastegi (Informatika Fakultatea, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola eta Carlos Santamaria Zentroa) eta Bizkaiko Liburutegi Nagusia gehitu zaizkie.

187 pertsonak parte hartu dute (% 70 emakumeak eta % 30 gizonak), IRIak, AZPko langileak eta ikasleak barne.



Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

Ikasleentzako prestakuntza (1)

ONLINE IKASTAROA: *Bat egin nahi duzu iraunkortasunaren erronkarekin?*

Helburua: Graduko ikasleek iraunkortasunaren alderdi garrantzitsuenak ikuspegi praktiko batetik ezagutu ahal izango dituzte.

Iraupena: 37,5 ordu (1,5 ECTS kreditu).

Edizioak: Laugarrena: 2020/02/17 - 2020/03/31
Bosgarrena: 2020/10/05 - 2020/11/17

Parte-hartzaileak:

4. edizioa: 175 (%64 emakumeak, %34,9 gizonak, %1,1 pertsona ez-bitarrak)
5. edizioa: 235 (%65,5 emakumeak, %34,5 gizonak)

Arrakasta-tasa: 4. edizioa (%45,1); 5. edizioa (%41,7)

[Informazio gehiago](#)



Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

Ikasleentzako prestakuntza (2)

ONLINE IKASTAROA: 2030 Agenda GRAL-etan txertatzea

Helburua: Gradu 4. mailako ikasleek 2030 Agendako tresnak identifikatzen ikasiko dute, GrAL-ean txertatzeko.

Iraupena: 37,5 ordu (1,5 ECTS kreditu).

Edizioak: Bigarrena: 2020/01/23 - 2020/02/10
Hirugarrena: 2020/10/19- 2020/12/07

Parte-hartzaileak:

2. edizioa: 32 (% 65,5 emakumeak, % 34,5 gizonak)
3. edizioa: 35 (% 62,8 emakumeak, % 37,2 gizonak)

Arrakasta-tasa: 2. edizioa (% 53,1); 3. edizioa (% 54,28)

[Informazio gehiago](#)



Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

Ikasleentzako prestakuntza (3)

ONLINE IKASTAROA: *Finantza etikoak*

Helburua: Finantzetan etika, iraunkortasuna eta elkartasunaren ikuspegitik hasi nahi duten ekonomia eta enpresa adarreko gradu eta graduondoko ikasleei zuzendua.

Iraupena: 25 ordu (ECTS kreditu 1).

Edizioak: Lehenengoa: 2020/10/13 - 2020/11/20

Parte-hartzaileak: 43 (%69,7 emakumeak, %30,3 gizonak)

Arrakasta-tasa: %76,74

[Informazio gehiago](#)



Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

Ikasleentzako prestakuntza (4)

ONLINE IKASTAROA: *Garapenerako Unibertsitate Lankidetz*a

Helburua: Garapenerako Unibertsitate Lankidetzan hasi nahi duten graduako ikasleei zuzendua.

Iraupena: 37,5 ordu (1,5 ECTS kreditu).

Edizioak: Laugarrena: 2020/01/31 - 2020/03/13
Bosgarrena: 2020/09/28 - 2020/11/09

Parte-hartzaileak:

4. edizioa: 57 (%78,5 emakumeak, %21,5 gizonak)
5. edizioa: 70 (%81,4 emakumeak, %18,6 gizonak)

Arrakasta-tasa: 4. edizioa (%73,2); 5. edizioa (%64,2)

[Informazio gehiago](#)



Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

Ikasleentzako prestakuntza (5)

ONLINE IKASTAROA: *Nutrizioaren eta osasunaren arloko profesionalak Garapenerako Lankidetzari egindako ekarpenak*

Helburua: Garapenerako Unibertsitate Lankidetzan hasi nahi duten Osasun Zientzien adarreko gradu eta graduondoko ikasleei zuzendua.

Iraupena: 37,5 ordu (1,5 ECTS kreditu).

Edizioak: Lehenengoa: 2020/03/30 - 2020/05/08

Parte-hartzaileak: 58 (%79 emakumeak, %21 gizonak)

Arrakasta-tasa: %93

[Informazio gehiago](#)



Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

Ikasleentzako prestakuntza (6)

**ONLINE IKASTAROA: *Bideoaktibismoa* *Gaztenpatian:*
*Garapenerako lankidetzan komunikatzen***

Helburua: Bideo-aktibismoan eta Garapenerako Unibertsitate Lankidetzan hasi eta Gaztenpatia Programan parte hartu nahi duten Gizarte eta Komunikazio Zientzien adarreko gradu eta graduondoko ikasleei zuzendua.

Iraupena: 37,5 ordu (1,5 ECTS kreditu).

Edizioak: Lehenengoa 2020/06/01 - 2020/06/26

Parte-hartzaileak: 48 (%64,5 emakumeak, %35,5 gizonak)

Arrakasta-tasa: %45,8

[Informazio gehiago](#)



Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

Irakasleentzako prestakuntza

ONLINE IKASTAROA: *Iraunkortasunerako Hezkuntzaren gaitasunak unibertsitate ikasketetan zelan integratu?*

Helburua: Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza (GIH) irakasgaietan integratzeko konpromisoa duten irakasleei zuzendua.

Edizioak: Hirugarrena 2020/06/01 - 2020/06/29

Parte-hartzaileak: 33 (%60,6 emakumeak, %39,4 gizonak)

Arrakasta-tasa: % 81,8

[Informazio gehiago](#)



Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

Beste batzuk (1)

Iraunkortasun Zuzendaritzak honako udako ikastaroa antolatu du:
“Universidad y sostenibilidad: compañeras de viaje para una gran misión”


Helburua: Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza (GIH) irakasgaietan integrazteko konpromisoa duten irakasleei zuzendua.

Edizioak: Hirugarrena 2020/06/29 - 2020/06/30

Parte-hartzaileak: 56 (%80,3 emakumeak, %19,7 gizonak)

Arrakasta-tasa: %100

[Informazio gehiago](#)



**UNIVERSIDAD Y SOSTENIBILIDAD:
 COMPAÑERAS DE VIAJE PARA UNA GRAN
 MISIÓN**

29. Jun – 30. Jun
 Online en directo



Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

Beste batzuk (2)

Zuzendaritzak UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko klima-aldaketari buruzko Ikerketa Jardunaldietan parte hartu du baita ere.



Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

Iraunkortasunerako hezkuntza proiektuetan parte hartzea



Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan

Praktikak eta gradu amaierako lanak garapenerako lankidetzan egiteko programa

Osasun egoerak mugatu egin du nazioarteko mugikortasuna. Hala ere, 2019/20 ikasturtean 51 ikasleri (% 86 emakumeak eta % 14 gizonak) eman zaizkie laguntzak unibertsitate praktikak eta gradu amaierako lanak garapen lankidetzaren arloan egiteko. Pertsona horiek 6 unibertsitate zentrori atxikita daude.

[Informazio gehiago](#)



Garapenerako lankidetzaren inguruko unibertsitate-praktikak eta gradu amaierako lanak egiteko diru laguntzak

Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan

Gaztenpatia programa

Gaztenpatiaren V. edizioa jarri da abian. Programa horren xedea da Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeetako gazteen artean enpatia eta elkartasuna sustatzea. 3 unibertsitate zentrotako 6 ikaslek parte hartu dute (%67 emakumeak eta %33 gizonak), eta Guatemalara eta Kolonbiara joan dira Tokiko Euskal Erakundearen Elkarteak (Euskal Fondoa) lankidetzako proiektuak abian jartzen dituen proiektuetan parte hartzeko.

[Informazio gehiago](#)

Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan

Gaztenpatia programa

Gaztenpatia kulturarteko topaketa egin da. Proiektuaren xedea da gazteen artean enpatia eta elkartasuna sustatzea, sormenaren eta gizarte ekintzailtzaren bidez. Topaketa 2020ko otsailaren 3tik 7ra bitartean izan da, Gipuzkoa eta Bizkaiko Campusetan. Topaketa honetako jardueretan, UPV/EHUko unibertsitate komunitateaz gain, Gaztenpatriak Guatemalan eta El Salvadorren dituen proiektuetako 4 ordezkariak parte hartu dute.

[Informazio gehiago](#)



Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan

Praktikak eta gradu amaierako lanak garapenerako lankidetzan egiteko programa

Mugikortasunerako laguntzen deialdi bat onartu da UPV/EHUren Garapenerako Lankidetzaren arloko praktika akademikoak tutorizatzen dituzten edo gradu amaierako lanak zuzentzen dituzten irakasleentzat. Bidaia horien helburua da testuinguruaren potentzialtasuna balioesten laguntzea, UPV/EHUko ikasleek beren praktikak edo GRALak *in situ* gara ditzaten.

2 laguntza onartu dira UPV/EHUko bi irakaslerentzat, bata Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatekoa (Saharara bidaia) eta bestea Bilboko Ingeniaritza Eskolako (El Salvadorrera bisita). Osasun alertaren ondorioz, lehen bidaia baino ezin izan da egin.

[Informazio gehiago](#)



IRAKOOP

Mugikortasun laguntzen deialdia
UPV/EHUren Garapenerako
Lankidetzaren arloko Praktika
Akademikoen tutoreentzat edo
Gradu Amaierako Lanen
zuzendarientzat

Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan

Ikasleek erakundeetan boluntariotza jarduerak egiteko kudeaketak



GIZALDE
GIPUZKOAKO BOLUNTARIOTZA

Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan

Gizarte erakundeetan eta UPV/EHUren berezko programetan elkartasun eta lankidetzak jarduerak egiteagatik hautazko kredituak aitortzeko protokoloa eguneratu da.

[Informazio gehiago](#)

Elkartasun- eta boluntariotza-jarduerengatiko hautazko kredituak aitortzeko 263 eskaerari erantzun zaie 2020an (emakumeak %76,4, gizonak % 22 eta pertsona ez-binarioak % 1,5), eta guztira 712 kreditu edo 21360 lanordu aintzatetsi dira.

2020ko ekainaren 25ean **“Uda solidarioa eta boluntariotza. Parte hartu!”** webinarra egin da.



WEBINAR BATEGIN
Verano solidario y voluntariado. ¡Participa!

25/06/2020
16:00 (45´)

aman ta zabal oazu
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

bolunta


Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan

Autogestionatutako boluntariotza ekimenak bultzatzea eta babestea

Boluntariotza autogestionatuaren programa bultzatu da jarduerak gauzatzeko bai unibertsitate eremuan –oro har, jendeari irekita– bai gizarte erakundeetan –erakundearen hartzaileei zuzenduta–.

Horretarako, hainbat bideo egin eta zabaldu dira.

[Informazio gehiago](#)




Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan

Autogestionatutako boluntarioria ekimenak bultzatzea eta babestea

2020ko otsailean eta martxoan, Jolas eta Ekin GGKEarekin elkarlanean, **"Aldaketa klimatikoari STOP SORTU-EKITEKO tailerra"** antolatu da. Tailer honetan parte hartu duten 4 lagunek (% 75 emakumeak eta % 25 gizonak) proiektu bat jarri dute martxan pinturaren eta eskulturaren esparruan materialen kontsumo arduratsua egiteko eta Arte Ederren Fakultatean ekoitzitako hondakinak arduraz kudeatzeko.

[Informazio gehiago](#)



Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan

Autogestionatutako boluntarioritza ekimenak bultzatzea eta babestea

GU GEU BOLONDRES PROIEKTUAK



Botellas ECO-Lógicas



**SOMOS+ por la Inclusión
bloga**



**Aldaketa klimatikoari
aurre egiteko
sentsibilizazioa eta
ekintza**



IKas2D

**Laguntza akademikoa
DBHko lehen zikloa
ikasleei**



**Errefuxiatuentzako
online bidezko
hizkuntza
prestakuntzarako
laguntza**



**Lehen Sorospen
Jardunaldiak**

UPV/EHUK errefuxiatuei laguntzeko hartuak dituen konpromisoak garatzea

Errefuxiatu eta asilo eskatzaileentzako arreta programa

UPV/EHUK ARGI ETA GARBI DEFENDATZEN DITU NAZIOARTEKO BABESA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK

UPV/EHUK, 2015eko urriaren 1eko Gobernu Kontseiluan aho batez hartutako erabakiarekin bat etorriz, babes eta aterpe eske datozen pertsonen eskubideen alde agertu nahi du inolako aitzakiarik gabe. Akordio horretan, konpromisoa hartu zuen hainbat ekintza egiteko Euskal Autonomia Erkidegoan errefuxiatuak artatzeko. Ekintza horiek lau jardun ildotan antolatzen dira:

1. Laguntza eskaini, egoera akademikoa eta unibertsitatera sartzekoa erregularizatzeko prozesuan
2. Laguntza eskaini, unibertsitatearen esparruko premia bereziak betetzeko
3. Sentiberatzea eta eztabaidatzea sustatu
4. Nazioarteko babesa duten pertsoneri laguntza ekonomiko eta materiala, 20.000 euroko funts baten bidez.



UPV/EHUK errefuxiatuei laguntzeko hartuak dituen konpromisoak garatzea

Errefuxiatu eta asilo eskatzaileentzako arreta programa

2019/20 ikasturtean, Siriatic, Afganistandik, Errusiatik, Saharatik, Venezuelatik eta Nikaraguatik datozen eta nazioarteko babes egoeran dauden 16 laguni (% 25 emakumeak eta % 75 gizonak) administrazio izapideak egiten lagundu zaie unibertsitate ikasketak egin eta jarrai ditzaten; horien artean, 3 laguni (denak gizonak) ostatua eta mantenua eman zaizkie UPV/EHUko ikastetxe nagusietan eta egoitzetan.

2020/21 ikasturtean, Siriatic, Afganistandik, Errusiatik, Ukrainatik, Saharatik, Perutik, Kolonbiatik, Venezuelatik eta Nikaraguatik datozen eta nazioarteko babes egoeran dauden 21 laguni (% 33 emakumeak, % 67 gizonak) administrazio izapideak egiten lagundu zaie, unibertsitate ikasketak egin eta jarrai ditzaten; horrez gain, unibertsitate eremuan dituzten premiak asetzen lagundu zaie (ostaturako, mantenuko, garraiorako, materialetarako eta abarretarako laguntza ekonomikoak). Era berean, 4 laguni ostatua eta mantenua eman zaie UPV/EHUko ikastetxe nagusietan eta egoitzetan (denak gizonak).

UPV/EHUK errefuxiatuei laguntzeko hartuak dituen konpromisoak garatzea

Errefuxiatuen babesaren arloko sentsibilizazio ekintza gisa, ACNUR Euskal Batzordearekin lankidetzan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza ekonomikoarekin, 2020ko lehen seihilekoan honako proiektu hau gauzatu da: **MUGETAKO EMAKUMEAK: GENERO ETA LGTBI ARRAZOIENGATIKO JAZARPENA SAHARAZ HEGOALDEKO AFRIKAN**. Proiektu horren helburua izan da UPV/EHUko ikasleei ezagutzak, jarraibideak eta tresnak eskaintzea sormenezko kanpainak era autonomoan abiarazteko, eta hartara, mundu justuago eta solidarioago bat eraikitzen laguntzeko.

Prestakuntza-plan bat egin da, eta 14 ikaslek parte hartu dute (%71,4 emakumeak, %28,6 gizonak), kanpaina bat diseinatu da eta jardunaldi bat antolatu da 2020ko irailaren 30ean.



[Informazio gehiago](#)

Iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloan diharduten elkarteekin hitzarmenak sustatzea eta haiekin batera egiten den lana ezagutzera ematea

Hitzarmenak



Iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloan diharduten elkarteekin hitzarmenak sustatzea eta haiekin batera egiten den lana ezagutzera ematea

Iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloan diharduten elkarteekin batera egiten den lana ezagutzera ematea

Gizarte konpromisoaren eta lankidetzaren arloko hainbat ekitaldi (eztabaidak, erakusketak, zineforumak) antolatu dira.

Aipatzekoa da Invisible express film laburren lehiaketa, "**Klima-aldaketa edo larrialdi klimatikoa?**" gaiarekin. Kultura Communication Desarrollo (KCD) GGKEarekin elkarlanean antolatu da, eta 171 ikaslek parte hartu dute (%64 emakumeak eta %36 gizonak), batez ere Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatekoak.

Irabazleen zerrenda:

- 1. sariaren irabazlea: [No sé en la Ópera](#)
- Aipamen berezia: [Absurdez Mobile](#)
- Publikoaren sariaren irabazlea: [Oye Siri](#)

[Informazio gehiago](#)

CINE INVISIBLE
FESTIVAL INTERNACIONAL
FILM SOZIALAK 2021 BILBAO

IKUSEZINA INVISIBLE EXPRESS

9. Labur lehiaketa
9º Concurso de cortometrajes

Irailaren 29tik
urriaren 7ra

Del 29 de
septiembre
al 7 de
octubre

**UPV/EHU-ko ikasleei
zuzenduta**
Dirigido al alumnado
de la UPV/EHU

Epaimahaiaren Saria
Premio del Jurado
1.000 €

Ikusentzuleen Saria
Premio del Público
500 €

**Izen-ematea eta
oinarriak**
Inscripción
y bases en:
www.kcd-ongd.org

KCD **E** **EHU** **UPV/EHU** **UPV/EHU** **UPV/EHU**

Iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloan diharduten elkarteekin hitzarmenak sustatzea eta haiekin batera egiten den lana ezagutzera ematea

Iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloan diharduten elkarteekin batera egiten den lana ezagutzera ematea (2)

Jardunaldien zikloa: “Garapenez harago: bide berriak zabaltzeko teoriak, ikuspegiak eta esperientziak”

Ciclo de Jornadas

MÁS ALLÁ DEL DESARROLLO: TEORÍAS, ENFOQUES Y EXPERIENCIAS PARA ABRIR NUEVOS CAMINOS

La hegemonía del discurso del desarrollo y la cooperación internacional dificulta la articulación de miradas críticas que aborden de una manera diferente los problemas políticos, económicos, ecológicos y sociales a los que la cooperación al desarrollo pretende hacer frente.

Necesitamos abrir espacios de reflexión conjunta entre diferentes actores (ONGD, movimientos y organizaciones sociales, instituciones públicas, universidades...) para la construcción de paradigmas alternativos que, desde la pluralidad de visiones y la diversidad de acercamientos, posibiliten la emergencia de proyectos transformadores que puedan ir incluso más allá del propio ámbito de la cooperación.

En este sentido, en el marco del proyecto Pensamientos críticos sobre el desarrollo: teorías, enfoques y experiencias, desde Hegoa proponemos este ciclo de tres jornadas que pretende profundizar en tres propuestas clave para la construcción de alternativas al desarrollo: el postdesarrollo, los feminismos otros y la sostenibilidad de la vida, y la sostenibilidad ecológica. Trataremos de vislumbrar cuáles están siendo sus aciertos a la hora de construir alternativas al actual sistema, pero también abordaremos la cuestión de dónde están encontrando las principales resistencias y límites a la hora de enmarcar como propuestas reales de cambio.

Organizado por:



Financiado por:



Imagen: Liá Kastijo Spínola.

23 de enero
27 de febrero
26 de marzo de 2020

Lugar:
Aula Magna de la
Facultad de Sarrriko

Más información, sobre personas ponentes, experiencias y talleres en este [enlace](#).

Para cualquier otra duda: yenifer.garcia@ehu.eus

Inscripción gratuita - Plazas limitadas.

Fecha límite de inscripción:

Una semana antes de la fecha de cada una de las jornadas.

Formulario de inscripción en este [enlace](#).

Nota. Algunas ponencias serán en euzeraz. Se ofrecerá servicio de traducción simultánea.

Sexu eta ugalketa osasunari buruzko Ikastaroa

XX.



Online (zuzenean): ikastaroa “Gizarte eraldaketarako esperientzia afrikarrak”



Nazio Batuen 2030 Agenda unibertsitatearen eguneroko zereginetan txertatzea

UPV/EHUK, garapen iraunkorrerako 2030 Agenda ezartzearen aldeko apustuan, 2019an, [Garapen Jasangarriaren aldeko 2030 EHUagenda](#) eta [UPV/EHUren Garapen Jasangarriaren Adierazleen Panela](#) argitaratu zituen.

2018/19 ikasturteari dagokion adierazleen panela kalkulatu da, eta haren **bilakaera** aztertu da:

Oro har, hobekuntza nabarmenak ikusten dira honako alderdi hauekin lotutako adierazleetan: kalitatezko hezkuntza (4. GJH), genero berdintasuna (5. GJH), energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea (7. GJH), industria, berrikuntza eta azpiegitura (9. GJH), desberdintasunen murrizketa (10. GJH) eta hizkuntza eta kultura aniztasuna (17+1 GJH).

[Informazio gehiago](#)



Nazio Batuen 2030 Agenda unibertsitatearen eguneroko zereginen txertatzea

Adierazleen panela erreferentzia gisa erabili da berriki argitaratutako eskuliburu honetan: **“Cómo evaluar los ODS en las universidades”**. Eskuliburu hori Garapen Jasangarriaren Espainiako Sareak (REDS) egin du Ecoembesekin lankidetzan.

Bilduma bat egin da UPV/EHUko langileek inpaktu aldizkarietan argitaratu dituzten eta unibertsitateak bere gain hartutako 12+1 helburuak lortzen laguntzen duten argitalpen zientifikoekin. Argitalpen horiek 2030 EHUagendaren webgunean daude jasota, kasuan kasuko Garapen Jasangarriaren Helburuan (GJH). Argitalpenen zerrenda: <https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/ehuagenda-2030/ekarpenak-eta-ekintzak>

UPV/EHUK lehen aldiz parte hartu du Times Higher Education-en (THE) iraunkortasun rankingean. Genero berdintasunari dagokionez, munduko 49 unibertsitate onenen artean gelditu da, eta kontsumo arduratsuari dagokionez, 59 onenen artean.



Garapen iraunkorraren aldeko EHUagenda 2020 ikusaraztea

2019/20 ikasturteko hainbat ekitalditan aurkeztu dira garapen iraunkorraren aldeko EHUagenda eta adierazleen panela:

- Bilboko Merkataritza Ganberak 2019ko urriaren 15ean antolatutako “Bizkaiko enpresetan 2030 Agenda txertatzen” izeneko jardunaldian.
- 2019ko urriaren 24an eta 25ean Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Batzarrak (EUEB-Iraunkortasuna) “La Universidad en la transición social hacia la Agenda 2030” izenburupean, Oviedo eta Mieresen egindako bilera sektorialetan.
- 2020ko otsailaren 19an, EuroBasquek eta EDE Fundazioak antolatuta, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Sarrikon) egin zen “Europa Batasuneko kohesio politikaren 30. urteurrena: Gobernantza eta etorkizuna” jardunaldian.
- 2020ko martxoaren 4an, Bizkaiko Teknologia Parkean, Erakundeetan GJHak Integratzeari buruzko EUSKALITen Jardunbide Egokiei eskainitako jardunaldian. UPV/EHU izan zen sari hauen 6 erakunde finalistetako bat.


Nazio Batuen 2030 Agenda unibertsitatearen eguneroko zereginen txertatzea

UPV/EHUK 2030 Agendaren ezarpena eta GJHei egindako ekarpenak bultzatzea xede duen Eusko Jaurlaritzaren gida praktikoaren elaborazioan parte hartzen du

Gida horrek 2030 EHUagenda jardunbide egokien adibide gisa nabarmentzen du 2030 Agenda erakundearen ardatz nagusi gisa txertatzeko.

UPV/EHU Euskadi 2030 lantaldeko 17 eragileetako bat izan da.

[Informazio gehiago](#)



Nazio Batuen 2030 Agenda unibertsitatearen eguneroko zereginetan txertatzea

UPV/EHUko Ikasleen III. Biltzarrak

“Gure Gradu Amaierako Lanek (GrAL) mundua aldatzeko balio dute” izenburupean, erreferente izan nahi du datozen ikasturteetan, eta 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuen inguruan graduako ikasleek egindako ikerlanak ikusarazi eta aintzatetsi nahi izan ditu.

86 komunikazio proposamen jaso ziren: 40 Gizarte eta Lege Zientzietatik, 15 Osasun Zientzietatik, 14 Ingeniaritza eta Arkitekturatik, 10 Arte eta Humanitateetatik eta 7 Zientzietatik –40 gradu desberdinetatik–. Parte-hartzaileen %72,09 emakumeak izan ziren eta %27,91 gizonak.

Bi sari banatu ziren 2030 Agendaren ardatz tematiko bakoitzeko (Pertsonak, Planeta, Oparotasuna eta Bakea eta Aliantzak) eta **sari espezifiko bat eman zitzaion COVID-19 osteko egoerari egindako ekarpen esanguratsuenari.**

**UPV/EHUko
Ikasleen III. Biltzarra**
III. Congreso de Estudiantes
de la UPV/EHU
Gure Gradu Amaierako Lanek (GrAL)
mundua aldatzeko balio dute
Nuestros Trabajos Fin de Grado (TFG)
sirven para transformar el mundo

3.

2020ko urriaren 22a
22 de octubre de 2020

Universidad del País Vasco Euzko Herriko Unibertsitatea

Nazio Batuen 2030 Agenda unibertsitatearen eguneroko zereginetan txertatzea

UPV/EHU finalista izan da GJHak erakundeetan integratzeari buruzko EUSKALITen Jardunbide Egokien sarian

[Informazio gehiago](#)



Nazio Batuen 2030 Agenda unibertsitatearen eguneroko zereginen txertatzea

GJHen aldeko ideatoia

Cibervoluntarios Fundazioak antolatu du UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritzaren laguntzarekin. Ideien hackaton bat da, parte hartze irekiarekin, batez ere gazteei zuzendua, gizarte zibilaren eta tokiko erakundeen erronka zehatzak konpontzeko, mundua hobetzen lagunduko duten ekimenak sortze aldera. Ekitaldi hori erreferentea da jada, eta Nazio Batuen, Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioaren eta INJUVERen laguntza du.

[Informazio gehiago](#)

PARTICIPA Y APORTA TUS IDEAS POR LA SOSTENIBILIDAD

IDEATON X LOS ODS
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNIBERSITATEA

Los *Ideatones x los ODS* son eventos virtuales abiertos a la participación de la Sociedad Civil para ofrecer soluciones ciudadanas y acciones reales para alcanzar la Agenda 2030.

Sesiones para IDEATON x los ODS en UPV - EHU

Miércoles, 28 de octubre, 17:00 -19:00
Primera conexión
SESIONES INTERMEDIAS DE TRABAJO VIRTUAL POR GRUPOS

Miércoles, 18 de noviembre, 17:00 -19:00
Exposición virtual de resultados

Inscríbete escaneando el código QR

www.ideaton.org

Una iniciativa de

CIBER VOLUNTARIOS.org [empoder.org] unitar [Logo] injuve

con el apoyo de

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Nazio Batuen 2030 Agenda unibertsitatearen eguneroko zereginetan txertatzea

Belaunaldien arteko solasaldia Garapen Jasangarriaren Helburuen inguruan (II. Edizioa)

Gizartea eraldatzeko hezkuntza ekimen hau EHUko irakasleek eta ikasleek (Arabako Esperientzia Gelak eta Hezkuntza eta Kirol Fakultatea) eta Zabalketa elkarteak batera garatu dute. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Vital Fundazioaren laguntza izan du.

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea Zabalketa

IRAGANETIK JASOZ ETA ETORKIZUNERA BEGIRATUZ
BELAUNALDIEN ARTEKO ELKARRIKETA GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEN INGURIAN

RESCATANDO DEL PASADO Y PROYECTANDONOS AL FUTURO
DIÁLOGO INTERGENERACIONAL EN TORNO A LOS OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE

II. EDIZIOA - II. EDICIÓN

OTSAILAK 20
UNIBERTSITATE PABILIOIA
9:30-13:30

20 DE FEBRERO
PABELLÓN UNIVERSITARIO
9:30-13:30

WORLD CAFE

COLABORADORES / LAGUNTZAILEAK

EUSKO JAURLARITZAREN GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA AGENZIA NASCA DE COOPERACION PARA EL DESARROLLO

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

Vital FUNDACIÓN FUNDADA

UPV/EHUren prentsa oharrak

- [UPV/EHUK eta Gipuzkoako Diputazioak IkasLagun programa bultzatu dute, babes egoitzetako haurrei ikasketetan errefortzua eskaintzeko](#)
- [Ikasleen III. Biltzarrak garapen iraunkorreko helburuekin konprometituta dauden ikasleen ikerketa saritu du](#)
- [Ikasleak planeta iraunkorrago baten alde ikertzen ari dira](#)
- [Keinu txiki asko, aldaketa handia lortzeko](#)
- [“Mordoa dago egiteko”](#)
- [UPV/EHU munduko 49 unibertsitate onenen artean genero berdintasunean, eta 59en artean kontsumo arduratsuan](#)
- [Garapen Jasangarriko Helburuei buruzko belaunaldien arteko elkarrizketa](#)
- [UPV/EHUK 1.577 tona CO2 gutxiago isuri du COVID-19aren ondoriozko konfinamendua dela eta](#)
- [Formula Student Bizkaia i3 beste helburu baten bila: garapen jasangarria](#)
- [i ber hiru: efektu biderkatzailea hezkuntzan](#)
- [Film laburren jaialdiak: ikasleentzako ikaskuntza eta autoezagutzarako bide](#)

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

EMAN TA ZABAL ZAZU